

Goizueta koloretan, aniztasuna ospatuz eta kulturen arteko elkartrukea bultzatuz

Igandean, azaroaren 16an, eguerdiko 12:00etan, Goizuetako Udaletxeko Ganbaran herriko kultur aniztasuna ospatzeko eta balioesteko ekitaldi berezia egin zen: **Goizueta Koloretan**. Guztira, 80 herritar inguru bildu ziren, ekitaldi koloretsu eta ezberdin bat plazaratuz. Goizuetako Udala, Goizuetako eskola, Fundación Emplea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, herriko gazteak eta herrian bizi diren kultura ezberdinetako familiak izan dira proiektua bultzatu dutenak.

Dantza tradizional batek ireki zuen ekitaldia

Ekitaldia modu berezian hasi zen: Nikaraguako haur batek bere herrialdeko dantza tradizionala eskaini zuen, *Por un pedazo de cielo mi Nicaragua se formó* abestiarekin lagunduta eta jantzi tipikoekin.

Kulturak istorio bihurtu ziren: lau herrialde, lau ikuspegi

Sarreraren ostean, kulturen txanda iritsi zen. Goizuetan bizi diren hainbat familiek —Kolonbia, Nikaragua, Brasil eta Honduraseko jatorria dutenek— hitza hartu zuten, eta herriari haien istorio pertsonalak eta etortzearen atzean egon diren arrazoiak partekatu zizkieten. Herrialde bakoitzeko kultura, ohiturak eta tradizioak azaldu zituzten, argazkien, objektuen eta oroitzapenen bidez aberastuta. Halaber, hizkuntzaren erronkei buruz aritu ziren, egunerokoan sortzen diren oztopoak nola bizi dituzten azalduz; eta, azkenik, Goizuetan bizitzera egokitzeko prozesua kontatu zuten, herri txiki batek izan ditzakeen zailtasunak eta, aldi berean, komunitatearen babesa eta gertutasuna nola jaso duten gailenduz.

Hiru helburu nagusi landu ziren modu informalean: kulturen arteko elkatruea, herrialde ezberdinak balioan jartzea, eta estereotipoak haustea. Herritarrek galdera ezberdinak egin zituzten interesa eta errespetua erakutsiz, topaketa are gehiago aberastuz.

Eskolaren aurkezpena: txikien ere kulturartekotasuna landuz

Kultur aniztasunaren balioa ez da soilik nagusien artean landu behar den zerbait, horregatik, Goizuetako eskolak ere bere ekarpena egin zuen, ikasleek gelan egindako lana herrira ekarriz. Hizkuntza aniztasuna ulertzea eta partekatzea altxor berezia denez, eskolako ikasleek hizkuntza ezberdinak landu dituzte, eta ekitaldira alfabeto baten tailerra ekarri zuten, jendea bere izena beste hizkuntza batean idaztera gonbidatuz. Horrez gain, Ukrainako errezetekin egindako proiektua aurkeztu zen, herrian bizi den familia batekin duen lotura zuzenak proiektuari esanahi berezia emanez. Atal honek argi utzi zuen kulturartekotasuna eta aniztasunaren ulermena hezkuntzaren bidez modu eraginkorrean landu daitezkeela. Txikien ere egindako lana ikusmira bihurtu zen, eta nabarmen gelditu zen kultur aniztasuna herri osoaren kontua dela, belaunaldi guztiena eta lantzen jarraitu behar den zerbait.

Munduko zaporeak mahai berean

Ekitaldia amaitzeko, herrialde guztietako pintxoak dastatzeko aukera izan zen. Familiek egindako lan bikainari esker, jatorriko zaporeak, usainak eta errezetak izan ziren protagonista. Mahaien bueltan elkarrizketa berriak, eta loturak sortu ziren.

Goizuetako Udalaren mezua: kultur aniztasunak herria bizirik mantentzen duen zerbait da

Amaieran, Goizuetako Udalak nabarmendu zuen kultur aniztasunari esker mantentzen dela Goizueta kolorez eta bizitzaz beteta. Komunitate zabal eta anitz batek herriari etorkizuna ematen dio, eta polita litzateke ekimen hau urtero errepikatzea eta urtean zehar kulturarteko lanean jarraitzea.

Goizueta Koloretan ekitaldiak argi utzi zuen aniztasuna ez dela soilik errespetatu beharreko zerbait: ospatu beharreko aberastasuna dela.

Testuingurua: Pueblos VIVID Herriak eta Kulturartekotasun programak

Ekimen hau bi lan-ildo nagusiren elkargunean kokatzen da:

1. Pueblos VIVID Herriak

Fundación Empleak Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean koordinatzen duen proiektua da Pueblos VIVID Herriak, eta *Goizueta Koloretan* marko horren barruan garatu den ekimena izan da. Pueblos VIVID Herriak proiektuaren helburua: Nafarroako landa-eremuetan despulazioari aurre egitea, eta horretarako udalerri bakoitzean bertako erronkak lantzen dira, hala nola: etxebizitza, gazteen aktibazioa, tokiko komertzioen dinamizazioa, belaunaldi-erreleboa, eta kulturartekotasuna tarteko. 2024an 10 udalerri izan ziren partaide, eta 2025ean 12 udalekin egiten du lan Fundación Empleak, Nafarroa guztiko herrietan proiektuak garatuz.

2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzua – Kulturartekotasuna programa (Irusta Koloretan)

Ekimen hau, aldi berean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren Kulturartekotasun programaren baitan garatzen da, Irusta Koloretan proiektuaren bidez.